




Bizkaitarrei
Bizkaieraz



www.euskerazaleak.biz • info.euskerazaleak@gmail.com

**Julita
Berrojalbiz
Lauro Ikastola
50 Urteurrena**



PINGUINO ENPERADORE
Munetxek egokituta

Euskal astea

Azillak 21etik 25era

Euskalerrian euskeraz EUSKERAZALEAK

2016-2017 IKASTURTEA

BIZKAIERAZ 49. IKASTAROA IRU MAILLA

Egunak: astelen eta eguasten
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz eta arratsalde

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 94 423 53 22
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 10an

49. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES

Días: lunes y miércoles
o martes y jueves

Horas: Mañana y tarde

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 94 423 53 22
Bilbao 48001

Comienzo: 10 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitamabost euro) kontu onetan:

**EUSKERAZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
ES28 2095 0000 74 2000089615**

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!
Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 35 €.
Ez dozu ezer be idatzi bear.
Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.
Eskerrik asko!

Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322


info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille



ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85



PINGUINO ESKER ONEKOA PINGUINO UNKIGARRIA. Pinguino enperadore

Munetxek egokituta
Agurain 2016

Pinguino Enperadore Aptenodytes generoko abere-espezia, egaztien Spheniscidae familikoak. Euskeraz, pinguino **enperadore** dau izen arrunta. Pinguino guztien artean andiena da. Bai arra ta bai emea bardintsuak dira lumei ta tamañari dagokonez: 120 cm-ko garaiera eta 20-45 kg-ko pisua oi daukie.

Gaur egungo Aptenodytes generoko bi bizidunetako bat da pinguino enperadorea (bestea pinguino erregea da) baña ba da froga fosilik beste espezie bat, A.ridgeni, existitu zala baiezteko. Espezie aren fosila orain iru milloi urtekoa da ta Zelanda Barrian aurkitu dabe.

Pinguino enperadoreak baltzak daukoz bizkarra, egalak eta burua; aurrekaldea (anketatik bularre-
raño) barriz, zuria. Bularra ori argia dauko, eta belarri inguruan aurikular ori distiratsu ditu.

Pinguino guztiak lez, ezin dau egan egin. Egale gorrak daukoz eta gorputz idrodinamikoa, ta igerialari bikaña da.

Elikadurari jagokonez, arrañak jaten dauz batez be, bai ta krustazeoak (krilla adibidez) eta zefalopodoak (txipiroiak) be bai. Eizan dabillenean, 18 minuturaño egon daiteke ur azpian, eta 500 metroko sakoneraño eldu daiteke. Izan be, urpean igeri egiteko egokituta dago pinguino enperadorea: oxigeno gitxigaz moldatu al izateko emoglobina-egitura apartekoa dauko, azur sendoak ditu barotraumatismoa ekiditeko ta gaitasuna dauko metabolismoa atzeratzeko eta ezinbestekoak ez diran organismo funtzioak pausatzeke.

Pinguino enperadoreak elduen ugaltze, ziklo apartekoagaitik dira batez be ezagunak: urtero bidaia luzea egiten dabe (50-20 km), bikotetzeko eta kumeak elikatuteko. Antartidako negu gorrian ugaltzen dan pinguino espezie bakarra da. Emeak arrautza bakarra erruten dau. Asikeran, arrak txitatzen dau arrautza; bitartean, emea itsasora joaten da jatera. Gero gurasoek txandak egiten dabez, txitak zaintzeko eta itsasora jatera joateko.

Antartidako espezie endemikoa da. Bizi leku naturalean, 20 bat urte inguru bizi da.

Tamalez errututako erdia baño geiago galtzen da arrapatzaillen eta zikiñaren erruz.

Ona emen arrapatzaillen artean oituenak: foka-leopardoak, sugeak, azariak, itsaz-leoiak, tiburroiak eta orkak. Gizakiak be kaltegarri egiten dira ausardikeriz galeraziaz janari billa datozen pinguinoei petroleoa, kimika etekiñak edo ta zinkineriak jaurtiak, sarritan gauzatzen dabe pinguinoen eriotza.

Askotan uste dogu pinguinoentzat kaltegarria dala otza. Ori garaitzeko koipezko estalkiz zaintzen dabez gorputzak. Bein baño geiagotan bero larregiak berotzen dituenek, egoak zabaldu ta astinduten dabez, frankatzeko, edo ta luzatu urarteko egotandia.

Ona emen pinguinoen munduko jakingarri batzuk:

1- Ustez Pinguinotan 17 espezie dagoz. Ikus batzuen izena: Aptendytes (Pinguino andiak), Pygoscelis (Zepillu antzeko isatzaz), Eudytula (Pinguino txikiak), Megadyptes (bat bakarria), ta Eudyptes (gandordunak).

2- Pinguinorik geienen abiadura urpean: 6/12 km. orduko. Azkarrenak lortu leikie 36km orduko.

3- Pinguino "Emperadoreak" sartu daitezke ur sakonean 565 metro, 22 minuto urten barik. Pinguino geienak, bakoitzean 4-5 minuto, janaria oso sakonean dagolako.

4- Pinguinoak lurrean dabizenean isatsa-bustentxua lagun dabe zutik ibiltzeko. Anka biak batera ibiltzen dituez ariñago egitearren, batez be arri artean. Batzuetan aldazbera edo lei ganean atinik abiatzen dira indar gitxiago egiteko.

5- Pinguinoek urartean uger egiten dabe, aidean txoriak egaz egiten daben antzera.

6- Pinguinoak Antartikoan bakarrik agertzen dira.

7- Gorputz azpiko zuriak zaildu egiten ditu urazpiko arrapatzaileak eta ganeko beltzak goitik dabizenak.

8- Tamañu andikoak millakako esietan bizi dira ta taiu txikikoak eundakoetan.

9- Pinguinoen janaria arraitxu, kril eta beste ur antzeko landareak osatzen dabe.

10- Pinguinoak ur gazia ur gozo biurtzen dabe, gladula berezi baten bidez, odolari kalterik egin eztagion.

11- Isla Galapagosen bizi diran pinguinoak Artikoetik datorren aize freskoaz bizi daitezke.

12- Pinguino Emperadoreak 4 oin ta 90 libra oi ditu.

13- Pinguino Emperadoreen bikotea ordezkutzen da arrultzak berotzeko janari billa doazen bitartean.

14- Pinguino Barbijoan dira ugarienak: 13 milloia.

15- Otzarik andienezan esi bat osatzen dabe, bat erdian berotzeko eta gero beste bat, txanda emonez.

¿Zenbat pinguino ez bardineta dagoz?

- 17/18 espezie ei dagoz.

¿Zein da pinguinorik txikiena?

- Pinguino urdiñak 40cm dauka luzeran eta 1 kg. bakarrik.

¿Zein da pinguinorik andiena?

- Luzeena ta astunena "Emperador" deritxona da: 100 cm luzerako ta 90 libraduna.

¿Zer jaten dabe?

- Askotariko arrai xeak, kalamara ta krilak.

¿Zebat denboran bizi dira?

- Geienak 20 urtetan

¿Zein da pinguinorik azkarrena?

- "Papua" deritxona, 36 km orduko uger daikena.

¿Zergaitik daukie aurrea zuri ta atzea baltza?

- Gora begituz zeruko argitasunegaz nastu ta berantza begituz itsasoko sakon illunegaz okertuteko.

¿Zer dala ta ez dagola pinguinorik Artikoan?

- Artikoan ez dagolako itsas arrapatzaillerik, bai ordea lurrekoak....

¿Ba aldaukate lumarik pinguinoek?

- Bai, egazti guztiek lez. Luma gogorak dira. Batzuk luma zarrak bota ta barriak jazten dituez: "Emperadoreak" azaro-abendu aldera ta "Adeliek" martxo-jorrailla aldera.

¿Ba al daukie Pinguinoek belarririk-entzutekorik?

- Etxakie ikusten agiriaren, baña bai kanporantza doan zuloa. Oso garrantzizkoa da Pinguinoentzat entzumena, abotsez alkar ezagutzen diralako.



ESKER ONEKO PINGUINOAREN ISTORIA.

Ezta bein bakarrik pinguino magallanikoak eldu dirala Rio Janeiroko ondartzetara. Olango bat dogu sinistu ezineko gertaera burutu ebana.

Lau aldiz, urterik urte, pinguino berberak, bere ongillea bisitatzearren joan-etorri luzea osatu eban, esker oneko keñua erakutsiz.

Joao Pereira, 71 urteko igeltzeru ta itsas gizon oiak, 2.011 gn pinguinotxu bat aurkitu eban arkaitz artean iltzeaz, petroleoz blaituta. Egunetan zaindu eban txukun, garden, garbi, indar berritu ta berpiztuarte. Alantxe gauza izan zan barriro Txileko egoaldera joateko, denporaldi batez janaritzeko asmotan, "Dindim" izena ipiñi eutson.

"Maite minduta nauko ta nik be maite dot benetan, diño Pereirak egaztitzuaganako maitasun xamurra gozatuz"

"Egaztixua Ekaiña inguruan etorten da ta Otsaillean alde egiten. Gero ta maite minduago agertu be. Pozik dago garbitzen dodanean baita sardiñakaz janeritzen dodanean be. Etsaio atsegin beste iñork ikututzea"

"Danak esaten eustien ez zala atzera etorriko, diño brasildarrak, baña itzuli egin da azkenengo lau urtetan"

Pereira berak izan zan asteetan zaindu ta janaritu ebana "DINDIM" indarbarrituteko jan apartekoa emonaz. Indarbarritu ostean itsaroratu eban Txile ta Argentinako ondartza egoaldera denporaldi batean janaritu al izateko.

Guztien arrigarriztat, batez be Pereirarentzat, pinguinoa berbiztuta itzuli zan ondartzara, zotzi illabeterako lagun egiteko bere "aita ordekoari". Maite dot seme legez ta urtetik urtera maite-minduago agertuten jat, diño Pereira.

Pereira berak ipiñi etson Magallaganeko pinguinoari "Dindim" izena, eta urtero burutzen dau **zortzi mila kilometroko (8000) itsas bidea** bere ongillea, Brasilgo ur epeletan ikustearren. Eta alkartu ostean Pereirak janari berezia prestatzen dautso bere "Dindim" pinguinotxuari.

Gertaera unkgarria, benetan !



Ni, neu Jose Ma Murua

EUSKERAZALEAK ALKARTEA. BILBAO.

2015eko sari leiketa. laugarren saria

ITZAURRE

Idazpuru motza, gogo eta batena izatekotan asten dut nire lantxo apal au. Gogo eta sakona nai nuke biurtzea ordea. Noa bada, ar dezadan bidea eta nolakoa gertatzen zaidan gertaera, "NI" idazpuru motz orren inguruan.


DENBORAN ZEAR. GURE IZAERA.

Eta denborak atzera naramalarik, bi erri txikitan kokatzen dut nire gogo. Gogo, maitasunez betea. Bi Erri txiki orietan asi bait zen, nire gertaera izango zenaren azia.

Eta gizon bat eta emakume bat nire gogora. Oriek ere izan zuten ume denbora.

Eta or mutikotxoazaltzen zait. Baserri batean jaio da, Gipuzkoan kokatua. Bizi modu latza eta irten bide motza. Baziren beste lau. Obe bearrez eta amar urteko zela edo, morroitxo biurtu zen. Umerik ez zuten beste baserri batean. Semetzat artu zuten eta izaten zuen egunoro tartea eskolara joateko ere orrela ogei bat urte bete zituen arte. Eta erritik gertu zegoen beste itsas aldeko erri batera joan zen, eta itsas gizon biurtu.

Beste errian, Napparroan, neskatilla bat. An ere tartea zuen eskolara joateko. Ori gauza! Gure sorterri onetan, euskera eta gaztelera gurutzatzen. Eskolan umeak asten zirenean, euskera utsik jakiñik, gaztelera alfabetatzen zituzten. Eta ainbat aldiz esandakoa, eraztunarena ere gertatzen zitzaien. Soroan ere ibiltzen zen neskatilla. Aitonari laguntzen. "BuruTxuri" ezizenezkoa. Aita bidezain, etxetik kanpo ibiltzen zen



lanean. Orrelaxe pasa zituen ogei bat urte. Bost anai arreba, eta zaarrena mayorazgoaz, bakarra zen baserriko lanean bizimodu aterako zuena. Eta iriburura joan zen, gure neskatilla, jatetxe batean lan egitera. Kai aldean zegoen eta baporeak ikusten zituen egunoro, illunabarrean kaiaratzen


Geroz, jaioterria aaztu eziñezkoa, egingo zitzaien. Erri miña azken batean. Antzeko bizimodua bi errietan... Nikola Ormaetxea, gure Orixe aundiaren, EUSKALDUNAK izeneko bere liburuan aipatzen den garaikoa eta girokoa dugu, gure bi norkiak bizi izan zutena beren ume denboran.

Orduan erri txiki orietako bizimodua, nekazaritzari eta artzaintzari lotua izaten zen. Bizi modu apala, oitura zaarrak, oso zainduak, eta fedeari edo kristautasunari atxikituak. Pesta buru, jai aundia izaten zen, baserriko lan gogorraren atsedean aldia. Batean “Sanjuanak” zirela, edo bestean “San Lorentzo jaiak”. Bitartean eta kristautasunaren egutegiari jarraituz, “Korpus” zela edo Biztuera eta Jasokundea”. Euskal jokoak eta apustuak. Auzolana. Kanpoan zeuden pamilikoen ikustaldia, jaioterrira biurtuz. Eta a zer nolako pozaldia! Berriro elkartzearekin Bizi poza gauza aundirik gabe.

Gure bikotearekin jarraitzen dugularik, une bat iritxi zitzaien, elkar ezagutu zutenekoa. Neskatilla jatetxean maiak serbitzen eta arrantzalea, egun bateko artan, itxasotik etorri eta jatetxera joan zen afaltzera. Eta bien begiak gurutzatu ziren. Aientzat egun señalatua izango zena beren bizimodu guztian. Maitemindu eta ezkondu egin ziren.

Eta orrelaxe gogoeta auek idazten ari naizelarik, nire bururarekin, topo. Eta begiak izenpuruan dauzkat. Eta nor ote da “NI” ori ?. Ez da zailla asmatzen. Bikotea, nire aita eta ama, gurasoak.

Gaia zabaltzera narama ordea nire kontakizunak. Zeaztu bearra daukat, aurrean esandakoa. NI orreri ez dagokiola, ni naitzena soillik. Nor bakoitzari dagokiona ere berdina izan liteke. Pertsona bakoitzaren nortasuna.




Eta zeatz meatz esateko, emen pertsona dugu ardatz, eta bere duintasuna pertsona bakoitza. Beraz, oroar azken batean NORTASUNARI, buruz ari natzaizue. Eta nor bakoitzari bear zaion errespetua edo begirunea.

ONDORIO BATZUK


Eta AURREAN ESANDAKOARI JARRAITUZ, beste onetara narama. Ain zuzen filosofo eta idazle ospetsu baten esarak "Yo soy yo y mi circunstancia" Eta beste au ere aipagarria "cada hombre es un pensamiento único." Biak ain zuzen Ortega y Gasset izeneko, filosofo eta idazle aundiarenak. Eta berak esana, bere orretan utziko dugu, mezua, itzulpenik gabe. Azken batean eta gaur egun, gure erri onetan denok bait gera elebidun. Eta aipatu esaldi sakon oriek bere orretan uztea obe. Beste bide batera jo eta, berriz, kristaitasunak esaten digunez "Gizaki bakoitza Jainkoaren seme edo alaba da". Edo eta "Gizaki bakoitza Jainkoaren irudira egiña da" Ezin geiago esan eta izan Eta naiz iritzi batetik edo bestetik ikusi, esandako orietan, nor bakoitzari bear zaion errespetua, nabarmentzen da.

Errespetua aipatu dugu Zoritxarrez, ordea, gaur itz ori naiko zaarkitua dago. NORTASUNA. Nonnaitik zapaltzen da. Ori dugu idazkitxo onetako ardatza eta azaldu naia. Eta nabarmendu, pertsona bakoitzak bear duen begirunea. Bere duintasuna. Eta



ortik zabalduz, asteko, gu euskaldunak gerala, Euskalerrikoak, esan bear.

Orrela dio kanta ezagun batek. Eta asteko orri dagokiolarik, naiko lan izan dugu, alde orretatik gure noratsunari eusten, ez dugu errez izan.



Beste aipamen batzuk, nortasunari dagozkio-tenak. Esker ona. Iraiñak eta gezurra baztertu.

Iñoren izenik ez beztu. Jesusen esaldira biurtuz: Maite ezazu lagun urkoa zeure burua bezala. Eta esaten orren uzta PAKEA ETA ASKATASUNA, biak batera. Zoritxarrez ordea, iñoiz baiño geiago zapaltzen da gizakion duintasuna. Eta egunoro egunkarietan edo telebistan. Liskarrak, ilketak, gosea eta orien eragille, pakerik eza. Gerratea.

Gurera biurtuz berriro, duintasuna, errespetua

Orri buruz gogoetan ari naizelarik.

Lantxo au egiten, urrutizkiñaren otsa: Iruñetik dei bat. Nondik ez nion artu eta auxe entzun: (Abotsa goxo zeta kopetargi izango zuen noski, deitzaleak)

- Aizu enkuesta edo galdeketa bat egiten ari gera. Telebisitari buruz. Eta esaidazu zenbat urte dituzun.
- Bada ni milla bederatzi eun eta ogeita amarrean jaioa naiz, etz ortik kontuak atera.

Ori esan eta bereala abotsaren aldaketa nabaria zelarik, eta seguru asko kopetillun, urrutizkiñaren bestaldetik, eta auxe entzun nion:

- Guk beste adiña bateko gizonen iritzia nai genuen jakin.

Eta segituan moztu egin zuen, galdeketa, agurrik ere esan gabe Errespetua, duintasuna Leen batez ere, ots aundikoa izaten zen “zarrei bear zitzaien errespetua”. Gaur ordea, denbora berri-tan bizi gera. Ara nire lantxo apal onetan naiko gai, buruarekin jorratzeko.

Eta neure ausnarketak, bide batez gogoeta onetara narama. Pertsona bakoitza den bakarra izan da eta izango da. Ez da besterik pertsona bera izango. Ainbeste milloi eta milloiren artean ez da sortuko egokipen ori. Ortik bere garrantzia eta duintasuna, nor bakoitzarena. Esaera zaar batek auxe dio: Bide guztiak Erromara eramaten omen dute. Eta neure gogoeta auek Jainkoaren bidetara naramate, ez diot beste zentsurik bizimodu oni aurkitzen, nire apaltasun xume-xume onetatik. Amen.

JULITA BERROJALBIZ LAURO IKASTOLA 50 URTEURRENA

Zenon Uriguen.c.p.



Historia goragarria

Julita Berrojalbiz, Axangiz errian, Gernika ondoan, jaioa dogu 1923an, baserri eder batean, euskal familia zintzoan, guraso jator batzuen etxean, jatorrizko izkuntza ta ezkuntza sano bizi dan txokoan. Eskolan ikasteak egiñik amar urtekin Bilbora dator monjen ikastetxera. Gazteizen batxilergoa amaitzen dau. Gurasoek erabaki dabe Valladoliden goi ikasteak egitea. Julitak beste ikasgaien ganetik irakasle izateko ikaskuntzak egin ditu. Gero Bilbora etorririk kezka ta ardura baikorra sentitzen dau. Euskera “ondo jakin eta egin, ta euskal gramatika ikasteari ekin”. Xabier Peña da euskal irakasle trebea eta bere ikastetxean ikasle onena izango da. Euskadik, aldi orretan, urte garratzak bizi ditu. Frankoren dictaduran euskeraz egin eta ikastea debekatua dago. Eta emengo poliziak, beti adi, garratz zigortzen eben ori. Larrialdi onetan Julitak erakutsiko dau bere euskal zaletasuna, nortasun autsi ezina, naiz ta arriskuz inguratu ta bizi.

"Izan zirelako gara, garelako izango dira"
(Barandiaran)

Leen ikastolaren jatorria

Julita Berrojalbiz euskal erriaren egoera larria aztertu eta ausnarturik euskeraren eragille eta gidaria bihurtuko da. Jo ta ke burutuko dau bere asmo ta gogoia.

1957 urtean Bilboko S.Nicolas Parrokiako abadea Jesus Gonzalez da, eta Julitak eskatzen dautso katekesis aretoetan. txoko bat Eusko Ikastola jartzeko. Abadeak onik. oparitu dautsoz areto bi. Amalau umekin jaio zan Bizkaiko leen ikastola. Xavier Peña, sustatzalle, Agurtzane Alberdi eta Maria Angeles Garai izanik andereñoak.

Zoritxarrez andik urte batera diktaturaren poliziak zitalki eta irañez beterik kaleratu egin ditu. Zorionez Iralabarriko Franzizkanoek abegi ona eginez aukeran daukez aretoak

Eta egun gitxi barru 48 ikasle batu dira ikastola onetan. Lau andereño dagoz prest ikaskuntzaren azi bizigarria umeen buru argietan erein eta eragiteko: Agurtzane Alberdi, Seberina Mardaraz, Estibaliz Gereño, eta Karmen Gangoiti. Ikastolan ikasle eta andereñoak poz-giroan dagoz. Baña zer? alde egin bear urte bete baño lenago poliziak agiñak erakutsiz. Alde batera ta bestera ibilliko dira eskeko gixajoak lez. Larrialdi onetan nork ipini itxasoari mugak? Etxerik etxe ikastolaren alde ekin. Ju-



lita, ixilpean, bere etxean 12 umeen irakasle da, bi bere alabak. Beste 4 txokoetan bardin. Maria Angeles Garai eta Xabier Peña izango dira irakasle bikañak.

”Euskera ikaskuntza oberena emon eta erakustea izan da gure leia, leen eta orain.”





Legezko ikastolak.

1965an Estatuak lege baten bidez agintzen dau batxillergoa egiteko, legezko ikasaldiak bearrezkoak dirala. Julitak egingo ditu alegiñak Euskaltzaindia eta Alfonso Irigoien idazkariaren laguntzaz. Erabakigarria da Euskaltzaindiaren eragiña eta bitartekotasuna agintarien artean Julita arduratsu dabil Ikastolak baietsi eta onik. ateratzeko. Xabier Peñak argi ta garbi esaten dautso Euskal Akademia dala erakunde berezia Euskeraren alde egitekoak egiteko. Julita arin baño ariñago doa bertara. Egun onetan Alfonso Irigoien zan idazkaria eta Julitari entzunik beregain artu eban gai ori. Esan eta izan. 1966 urtean, euskal erakundeen laguntzaz, legez tatu ziran ikastolak Resurrección María de Azkue izenagaz Lege goragarri onegaz etorkizun bidea zabalik ikusten da.

Ikastolaren historian agertzen da zorioneko Tere Rotaetxe andre aberatsa, euskera zalea, berebiziko oparia egiñez “Neuk oparitzen dautzuedaz Elkano 6, eta Gran Via 33. utzik daukodazan solairu eta aretoak ikastolak maite ditudalako”. Zorionez ikastola ume gorria orain bai, sendotu da, batez be, Bilboko erdigunean sekulako bultzada. izanik. 1972-73 ikas-urtean 630 ikasle ziran, bete-betean, utzun barik.

Bilboko udalak ikusirik ikasle kopurua erabaki dau ikastola tokiz aldatzeko. Nora?

Lauro Ikastola (Loiu)

Ikastola barri eta aundiaren egitasmoa abian jartzeko Kooperatiba Lauro sortu zan, 46.730 metro kuadroko lurra erosi, bere jabeak, Ikastola egiteko zala entzunda, oso merke emonik. 1980 urtean, ia 2.000 ikasle zoli, erne trebeak ditu.



Euskadiko ikastola aundiena eta leena da. Kooperativa Laurok gaur egun 1.400.bazkidetik gora ditu. Zorionez beti izan da gogarrria ikastola onen egitaraua gaurkotuz, era berritua, euskeraren leentasuna, euskera ikasi, egin ta eragin, baita be espaniera eta inglesa. nai dabenentzat Julitaren bizia “euskeraz kutsatua dago, eta ori da bere naia ikasle guztientzat”. Ikastolaren ekimena ez da emen

amaitzen. Julitak jarri zituan ikastolak Algotan, Portugaleten, Bermeon eta Zornotzan andereñoak izendatuz. Eta Bilboko Udalak bere omenez “Julita Berrojalbiz kalea” jarri. Euskaltzaindiak bazkide izendatu eban 1967 urtean, baita **Euskerazaleak Alkartean**. Julita 1998 urtean il zan. Bilbon. (G.B)

Bere urregorritzko euskera ondarea bizi da bizi gure artean. Zorionak.



Kristobal Kolon, Nafarroako IVn Karlos erregearen Semea izan ote zan? (XVI)

Kolon´tar Kristobal´en bizitza´ko edesti onen aria osteraberrezkuratuta.

Portugaleko errege II In Juanek, iru jakintsuen aolkularitzara eroatea agindu eban Kolonek aurkeztu eutsoezan eskeintzak: “erregearen osagille ta izarlari Rodrigo ta Josope judu bieri”, ta “gaztelako eleiztar Ortiztar Diego”, lenengo Zeuta eta gero Bizeu´ko gotzaia izan ziranai.

Jakintsu oneik, Kolonen eskeintza izarlari ta kosmografoakaz ikertu ta gero, ezetza emon eben, euren ustean Zipangoko lurraldea ez zalako kokatzen Atlat-itsaso zabala-
ren ostean.


Kolon 24 urte eukezala, bere emazte Moniztar Filipa il jakon, eta emen argi ikusi leike, bere bizitzan gertatu jakozenak, bere aita Nafarroako IVn Karlosen antzekoa zala, bere gorpua, Karmengo Ama Birjiñaren eleizan illobiratuta.

Kolontar Kristobal oartu zanean bere eskeintzat ez zirala onartuak izan, eragozpen aundi bat agertu jakon bere lau urteko seme Diego-gaz, ezin ebalako beren egitarauen eskeintzakaz askatasunez ibili.



1.485eko urtean geiago oldoztu edo arazo orreik buruan erabili barik, eta II In Juan Portugaleko erregearen beldur, edo zuurtasun andiz bai beintzat, erdi ostonkeran Uelbako Mugaren-Palos itxas-kai edo portura joan zan Diego bere semeak bosturte eukezala, eta lan asko egin ondoren, emendik asiko jakozan aukereak agertzen Koloneri, eukan burupidea aurrera eroateko, argitasunezko lenengo-izpiak Gaztelako lurraldeetatik asita.

Kolontar Kristobalek Uelbaren Mugako-Palos itsas-kaia aukeratu ba eban bere semeagaz joateko, Nieblako Konde-
rrian koñatu bi euki ebalako zan, Korreatar Pedro, Perrestrellotar Iseu´rekin ezkondu, eta Mulyar´tar Migel,



Muniztar Briolanja'gaz ezkondata egon zana, bide batez bere seme Diego zaindu egien, bere gauzakin ibiltezan birtartean.

Alderantziz be oldoztu leike, bertotik errezago euki ebalako Gaztelako gortera bere joan etorriak egiteko.

Baiña Kolonek jakinda andik 6 kilometrura Rabidako lekaidetxea egon zala, bertara joan zan bere semeagaz, ta atea jo ta ogi zatibat eskatuta bere semeentzat, frantzizkotar lekaideak arrotz-zaletasun guztiagaz onartu eban.

Eta emen Mallorkako Llulltar Ramon frantzizkotar jakintsua aipatu bear dogu, bere jakin aundiko ikerketaren bidez, itsas-mugimenduaren gora-berak adierazpendu egiten ebazanean,

Atlant itsasoko beste aldean lurrak egon bear zirela, esaten ebalako, gero Rabidako lekaretxearen Pereztar Juan eta Martxenatar Antonio frantzizkotar lekaideak aurrera eroan ebena.

Kolontar Kristobal Rabidan egoala, Pereztar Juan lekaidagaz aurkitu zan, eta bere asmo edo egin naiak berari

adierazten egoala, au arrituta, lekaidetxeko osagillea zan Gartziatar Ernandezeri deitu eutson, eta biak geratu ziran txundituta, Kolonen adierazpenakaz.

Lekaidetxe orreitan, ospe andiko izarlari bat be egon zan, Martxenatar Antonio lekaidea, baiña ez zan egon Kolon egon zan egunean.

Kolonek Rabidako lekaidetxe orreitan, etxe ta eskola eder bat aurkeztu eban bere seme Diegorentzat, eta lekaidetxera sarri joaten ziran ainbat mariñelekin, adiskidetasun aundiak aurkitu be bai.

Belaskotar Pedro izan zan alango adiskide mariñel bat, Koloneri beren 40 urte ariñagoko itsasoaren ibilkerak esaten eutsezanak, adibidez: Fayal ugarte ondotik aldatu ziranean eta 150 leko baiño geiago ibilita, Ipar-Mendebaleko aize zakar batengaitik eragozpenduta, itzuli bear izan ebela, ta bidean Loraren ugartea aurkitu ebela, lur-egazkiaren egazkadari begituta.

Kolonek, ez zala naikoa lekaidetxe orretan aurkitzen eban laguntzagaz eta bere pareko zaldun edo aundikiekin berba egitea erabagi eban, Guzmantar Enrike Medina Sidoniako dukearengana joanda, eta Kolonek beren gogoko asmoak adierazpendu ondoren, onek ez eutson onartu ezer.

Gero, de la Zerdatar Luis errege seme ta Medinazeliko Dukearengana joanda, eta au IVn Karlos Bianako printzearen alaba, Nafarroa eta Aragoiko Anarekin ezkondata egon zan ezkerro, nun agertu ziran koñatuak lez.

Eta Medinazeliko Dukeak emoten eutson laguntza, ez eutsala emoten

Zalduneko aundiki bat izateagaitik, beren koñatua izateagaik be laguntzen eutsolako, Berd eta Martorelltar Gabrielelek beren liburuetan ondo baiño obeto adierazpenduten dauan lez.

Kolontar Kristobal, urte bi inguru egon zan bere Nafar eta Aragoiko arreba Ana eta bere koñatu De La Zerdatar Luis Medinazeliko Dukearen etxean zalduneko arreragaz onartu ta zainduta, eta denbora onetan izango zan, bere koñatuak I Isabeleri idatzi eutsola eskutitz bat, esaten, zelango asmoak euki eban Kolonek itsasoaren bestaldera joateko.

1.486an Urtarrillaren 20an Kolontar Kristobal, IVn Karlos ta Margaritaren seme ta errege katolikua- ren loba au, Kordobara joan zan bere koñatu Medinazeliko Dukeagaz laguntzaille lez, onek I Isabelen aitorleari idazten eutsoezan eskutitzak eroaten, eta Talaberako Fernando I Isabelen aitorle oneri eroan eutsoezan eskutitz orreitan, idatzita joan zirala esan leike, Kolonen errege-seme ta ondorengotasunezko zaldun izaera, ezkontza, jakituri ta eukezan asmo guztiak.

Eta Kolonek, bere koñatuaren aolku bidez, erregearen zenbatzaille nagusi Kintanillatar Alonsorengana joanda, onek, Gonzalez ta Mendozatar Pero Sebillako gotzaia eta gero Toledoko kardinala "irugarren errege" izenagaz ezagutzen zana- rengana eroan eban.

Kolon, iru illabete inguru egon zan Kordoban, errege katolikuak Kordobatik itzuli arte, eta Kolonek, Jorraillaren askeneko gerta-egun orreitan ezagutuko ebanan bere izeko-osaba katolikuak.



Kolon, I Isabel eta Fernando erregearen gortera joan zanean, berak itsasoaren gora beran jakin ebananak adierazi eutsezanetik, eta eroan eban itsasoaren eskutitz edo mapa erakutsi ondoren esan leike, Kolon emendik aurrera babestuta egon zala bere izeko osabaren aldetik.

Errege katolikuak garrantzi aundia emon eutsoen asmo oneri, talde-buru bat antolatuta, Kolonek aurkezten eutsen egitaraua entzun eta ondoren ikertzeko.

1.486an Loraillaren 15ean Errege katolikuak orduko denboran moruekin guda gogorrean egonda, eta Fernando egun orreitan borrokara urten ebalako, Loraillaren ariñauko egunetan esan leike ikertasunezko talde-buru ori sortzeko erabagi ebela.

Talde-buru onen lendakaritza, ez eban euki edozeiñek, Talaberako Ernando au, I Isabelen aitorlea izanez gain, erregeiñarentzat orokorrezko-ministru baten antzerakoa izan zalako, eta osotzen eben taldekideak be, Salamankaren Ikastetxe Nagusiko jakintsuaren ardurapean ipinita: Zakuto'tar Abraham izarlari aundia, Torres'tar Diego izarraren irakaslea, de la Yerbatar Nuñez eta Nebrija kos-

mografo, itsaslari, filosofo edo jakin-zale omnetsuakaz osotu zan.

Kolontar Kristobal Salamankan egon zan denboran, benetan gozatu eban, bere jakintza ta asmoak, Salamankaren goi maillako ikastetxe nagusian, ta dominiko lekaidearen ardurapean egon zan San Esteban lekaidetxean adierazten.

San Esteban lekaretxe onetan gero, Deza'tar Diego izango zan zuzendari, Torkemadatar Tomas inkisiziozko azterkai nagusiaren ondorengo lez, Kolonek lekaide onen babes guztia eukinda, 1.504an Azaroaren 21ean Sebillatik, bere seme Diegori idatzi eutson lez.

Talde-buru onek, ainbat bider batzartu zan, eta danetan esaten eben eziñ-egiñezkoa zala Kolon Amiralak aurkezten ebana.

1.487an Loraillaren 5ean Kolon eta Diego lekaideak, Kordoban egon zan Granadako gudu abia-lekura lagundu eutsoen gaztelar gorteko kideai, eta Kolonek, orduan artu ebazan lenengo 3.000 marabedi, Uztaillaren 3an beste 4.000 marabedi, eta Dagonillaren 18an Malaga mau-

ritarrei kendu eutsen osteko Dagonillaren 27an, 4.000 marabedi KOLOMOTar Kristobalen izenarekin, beren biziaren beartasunerako.

Ekintza onek bakarrik argitzen dau, Kolon, errege katolikuaren loba izan zala, bestela nundik emongo ote eutsien ainbeste diru, eurak beartasunean egonda Andaluziko lurraldeak morueri kentzeko alegiñean ibilita ?.

1.487ko urte onetan Kolon Kordoban bizi zala, ez ebazan bakarrik beren bizitzazko bearraldiak asetu, baleiteke denbora onetan izatea, bere bigarren emazte-gaia izango zan Enrikeztar Beatriz, Gaztelako Amiral Enrikeztar Fradikeren alaba, leku orretan ezagutzea, eta beren bidez, 1.488ko Dagonillaren 15ean bere bigarren seme Fernando euki.

Baiña, 1.487ko urtearen amaieran edo 1.488 asieran, Kolon bere bidaiaren gora beran ikerlariai ainbeste deboran itxaroten, ta erabagirik ez zalako agertzen nekatuta, Portugaleko erregeari idatzi eutso eskutitz bat, beren zerbitzuak eskeintzen.




1.488an Epailaren 20an idatzita artu eban Kolonek, IIn Juan Portugaleko erregearen adiskidetasunezko, bizkorgarri eta maiteko-
 rrezko erantzuna, IIn Juanek gogo aundiak euki ebazalako Kolon berriz bere serbitzuan artzeko.

Kolontar Kristobalen itzaroteko asperraldi denbora oneitan, ainbat gauza kosmografia ta jeografiako liburuetatik irakurri ta idatzi ebazan, eta bere aita IVn Karlosen olerkari edo izneurlari oneko ondorengotik bere izaerazko zaletasunean agertuta, baita olerkiak be, bere “Iragarpeneko liburuan” agetzen diran lez.

Bai bere irakurketaren bidetik, oarketa asko idatzi be liburuko orrien idatzibako lekuetan, adibidez: Marko Polo, 1.489ko urtean irarritako Plinioren orokorrezko edestian, Plutarko, Ptolomeo ta abar.

Baiña, Sebillako “Kolonbino erakustokian” dagozan liburuak 2.125 oarketakin: 1.485eko urtean argitaratuko “Marko Polo latino”, “Senekaren izu-antzerkiak”, “d’Allytar Pedro kardinalaren Ymago mundi, onek 1.410ean idatzi eban Jeografiaren orokorrezko liburuan esanda, Asia Ekialdetik urrun zabaltzen zala, eta mundu onen biribiltasunezko beste aurpegi aldetik, ez zala egon Europatik bananduta itsas-estu bategaitik baiño, eta azkenez, Silbio ta Pikolominitar Eneas, gero Aita Santua izango zana IIn Pio izenarekin idatzi eban “leku guztietan gauza guztiaren egindako edestia”⁽¹⁾, dira.

Kolontar Kristobal, jakintza ta itsumenezko ardura aundiko gizo-



na zan bere munduko biribiltasunari begira, eta ez ebazan alboratzen libururik, kontu orreitan bere barruan aipamen txikerrena baiño ekarri ez arren.

Onez gain, Kolontar Kristobal gaztelanian egon zan denboran, oso babestuta egon zan, Kintanilla, Dezatar Diego, eta espainitarren Kardinala kontuan euki barik, Kabreratar Andres eta bere emazte Fernandez de Bobadillatar Beatriz, Moya´ko Markesak, I Isabel erregiñagaz adiskidetasun aundiak euki ebezanak, geiago, Malagako ingurutasunean batera egonda, mauritar batek Beatrizeri aitzokada sakon bat sartu eutsoenean berak galbidetik gordeta, bai eta Kabrerotar Juan erregearen gelazaiñ aldetik, eta abar.

Aragoi aldetik be, naita juduak izan arren, ba-eukazan beste adizkide laguntzaille batzuk, Santxeztar Gabriel diru zaiña eta Santanjeltar Luis idazkaria bezela.

Atutxa´tar Paul

Zornotza´n 2.015´eko urtean Epaila´ren 21´ean

(1) *historia rerum ubique gestarum* = Leku guztietan, egindako gauza guztiaren edestia.

E u s k a l a s t e a

Urte guztietan lez, aurten be Euskerazaleak Alkartean ospatuko da.

2016-11-21 URANGA Erika – LORALDIA: LORE JOKOAK GAUR

2016-11-22 ETXEBARRIA Juan Manuel – GORBEIALDEKO EKNOTESTUAK

2016-11-23 LARREA Angel – ERREFORMA PROTESTANTEA 500 URTE

2016-11-24 BARROETA Klaudio – EUSKALERRIKO TXAKURRAK

2016-11-25 ATUTXA Paulo – ABERRIA EDO LATERRIA ZEIN DA LEGEZKOA



ESKERRIK ASKO ETORTZEAGAITIK

Tokia: Colon de Larreategi – 14 - 2ª esk.

Ordua: **Zazpiretan**

EUSKERAZALEAK

IPUIN SARIKETA

Mesedez bialdu CD edo disketea

EUSKERAZALEAK ALKARTEAK, urte guztietan lez aurten be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

- Ipuiñak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearco dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZAK argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
- Ipuinak asmatuikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
- Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER-en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.
- **Azillaren azkenerako** EUSKERAZALEAK ALKARTEAren etxean (Bilbaoko Colon de Larreategi, 14, 2ª eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer-en agertuko da, Urtarrillean.
- Sariak bost izango dira:

1.ª	300 euro	4.ª	120 euro
2.ª	240 euro	5.ª	60 euro
3.ª	180 euro		
- Ipuiñak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan edo info.euskerazaleak@gmail.com izen-ordea ta izena.
- Epea azillaren azkenera arte.

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

EUSKERAZALEAK

ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar


..... kalean (auzoan..... zenbakian

..... errian, errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko (ogeitamabost euro) kontu onetan:

Euskerazaleak, Bilbao bizkaia kutxa : ES28 2095 0000 74 2000089615 zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN **"ZER"**. Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!



Zazpi laguneko famili batetan
arotza zen gure aita
gure erriko alkate ez izan arren,
lan egiten zuena.

Itsasoan urak andi dire,
murgildu nai dutenentzat
gure erriko lanak andi dire,
astun dire, gogor dire,
zatiturik gaudenontzat.

Markatzen ari diren bide nabarra
ez da izango guretzat,
leengo sokari ezarririk datorren
oztopo bat besterik.

Itsasoan...

Ainbeste mendetako gure morrontzak
baditu mila tankera
eta, zuur aukeratzen ez badugu,
bertan galduko gera.